

GIPUZKOAKO FORU ENPLEGU PUBLIKOAREN ETIKAREN ETA KUDEAKETA ONAREN KODEA

CÓDIGO ÉTICO
Y DE BUENA GESTIÓN
DEL EMPLEO PÚBLICO
FORAL DE GIPUZKOA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

Zuzendaria:

Goizeder Manotas,
Modernizazioaren, Zerbitzuen
eta Informazio Gizarterako
Sistemen zuzendari nagusia

Koordinatzailea:

Xabier Barandiaran,
Diputatu Nagusiaren
Kabineteko burua

Argitalpena:

2017ko Azaroa

Argitarapena:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentua
Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusia
Gipuzkoa Plaza z.g. 20004, Donostia
Tlfno. zb. 943 112 111
modernizazioa@gipuzkoa.eus

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema>

SARRERA

1

Ekonomia Kooperazio eta Garapenerako Erakundeak zein Europar Kontseiluak (Tokiko eta Eskualdeetako Botereen Biltzarra) Etika Publikoaren eremuan azken bi hamarkadetan onartu dituzten dokumentu guztiek argi planteatzen dute zuzentasunaren aldeko politikak ez direla zabaldu eta itsatsi behar Administrazio Publikoaren goialdean bakarrik (Gobernuaren eta kargu publiko exekutiboen nahiz aholkularien mailan bakarrik, alegia) baizik eta, baita ere, funtzio publiko osoan.

Funtzio publikoaren jokabide kodeak duela gutxiko fenomenoak dira, aurreratutako demokrazia batzuetan kode hauek XX. mendeko azken hamarkadetan agertu baziren ere. Dena den, laurogeita hamarreko hamarkada amaieran ELGEk funtzio publikoan kode etikoak garatzea sustatu zuen, eta horrek instrumentu horiek aipatutako nazioarteko erakundeko kide ziren herrialde askotan inpaktu handiagoa ekarri zuen.

Orduan kodifikazio adibideak ematen hasi ziren, hasieran legeen bitartez (adibidez Estatu Batuetan 1978an eta aurrerago Kanadan), eta ondoren arauzkoak ez ziren beste instrumentu batzuen bidez, funtzio publikoaren gauzatzea bideratu behar zuten balore sorta batzuk (edo zerbitzu zibilekoak), baita Administrazio Publikoko langile publikoek beren jardura oinarritu behar zuten jokabide arau edo erregelak ere.

Aurreratutako demokraziak funtzio publikoan (edo enplegu publikoan) ere ezar daitezkeen zuzentasun politikak garatu dituzte. Adibide gisa Erresuma Batuko Civil Service Codea dugu, zerbitzu zibilaren lau oinarriko balore jasotzen dituena (zuzentasuna, zintzotasuna, inpartzialtasuna eta objektibotasuna) funtzionario publikoek errespetatu beharreko jarrera batzuekin batera; Funtzio publikoaren baloreak definitzeko eta jarrerak zehazteko adibide garbia da, zalantzarik gabe, “Sektore Publikoko Balore eta Etikaren Kodea” kanadar Administrazio Federalean ezartzen dena, non funtzio publikoak Estatu demokratiko batean duen papera modu eredugarrian justifikatzen den, eta aldi berean, zerbitzu zibilaren balore garrantzitsuenak zehazten diren (demokrazia errespetatzea, herritarrak errespetatzea, zuzentasuna, errekurtsoen administrazio edo kudeaketa eta bikaintasuna); edo Frantzia argitaratutako “Nadal” txostena (2015), funtzio publikoan gertutasun kode etikoak (deontologikoak) onartzea sustatu zuena, bereziki 2016ko apirilaren 20ko 2016/483 Legea onartuz, funtzionarioen deontologia, eskubide eta betebeharrei buruzkoa.

2

Espanian ezar daitezkeen markoaren barruan, joera funtzio publikoaren legetan funtzionarioen eskubide eta betebeharrak jasotzea izan da beti, baloreak eta jokabide arauak zehaztu gabe. Hala ere, joera hau aldatu zen Langile Publikoaren Oinarriko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legea onartu ondoren (egun, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoaren Estatutuaren Legearen testu bategina: TREBEP), funtzio publikoaren araudiaren garapenean lehenengo aldiz langile publikoaren Jokabide Kodea erregulatzen da, printzipio, arau etikoak eta jokabide arauak dituen.

3

Gipuzkoako Foru Aldundiak agintaldi honen hasietarik sustatu zuen ideia-indar baten barruan sartzen zen politika bat: “Gipuzkoa eredugarria”. Ez dago aipatu beharrik erakunde publikoen eta, batez ere, horietan herritarrekiko zerbitzu publiko funtzioa burutzen duten pertsonen eredu hori gipuzkoar erakundeetan eta haren zerbitzari publikoetan konfiantza publikoa indartzeko balore handiko ukaezina dela.

Sustatutako ildo politiko horren arabera, 2016ko martxoan Gipuzkoako eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema publiko egin zuen, Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren Akordio baten bidez onartu ondoren. Dokumentu garrantzitsu hau onartzearekin batera, Jokabide Kodea eta foru kargu publikoen jardunbide Egokien Kodea ere onartu zen.

Eta testu berean oso zehatz amaitu zen: “Zuzentasuna ezin da Foru Administrazioaren goimailen eta bere sektore publikoko erakundeen artean bakarrik eman, erakunde osoaren eta bertan zerbitzua ematen duten pertsona guztien jarduna busti behar du”. Eta pertsona horien artean, nola ez, langile publikoen kolektiboa sartzen da.

Beraz, bere garaian onartutako Erakundearen Zuzentasun Sistema osatzeko, Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea onartu behar da, Gipuzkoako Foru Aldundian eta bere sektore publiko instituzionaleko erakundeetan lan egiten dutenentzat.

4

Kode hau, beraz, Zuzentasun Sisteman sartzen da, horren oinarritzko pieza garrantzitsu gisa.

Izan ere, Sisteman bertan adierazi den moduan, foru administrazioaren zerbitzurako langileentzat onartzen den Jokabide Kodeak “kode deontologiko izaera izango du, eta beraz, langile publikoek halabeharrez bete beharko dute, banakako atxikitze jardunik gabe”.

Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kode hau abiaraztearen azken helburuak, laburbilduz, honakoak dira:

- Foru Administrazioaren eta bere erakunde sektore publikoko erakundeen langile publikoek funtzio publikoak gauzatzeko baloreak identifikatu eta horien garrantzia azpimarratu.
- Foru langile publikoen herritarren zerbitzuko bokazioa eta orientazioa egonkortzea.
- Foru enplegu publikoaren profesionaltasuna garatzea balore etiko eta jokabide arauen eta kudeaketa onaren eta jardun profesionalaren printzipioen bidez.
- Foru enplegu publikoan azpiegitura etikoa eraikitzea, zerbitzuaren konpromiso profesionala eta bokazioa islatzen duena, baita foru enplegu publikoaren eredugarritasuna ere.
- Foru enplegu publikoaren

1

Enplegu publikoaren kode etikoaren xede eta izaera

1. XEDEA

1.1.

Kode honek foru langileek euren funtzioak egitearekin lotutako jarduera profesional guztietan barneratu beharreko balore etikoak eta jokabide arauak ezartzen ditu, baita kudeaketa onaren eta jarduera profesionalaren arauen printzipioak ere.

1.2.

Balore etiko eta jokabide arau eta kudeaketa on eta jarduera profesionalaren printzipio horiek arduraz betez, langile publikoek Foru Administrazioaren eta bere erakunde sektore publikoko erakundeen azpiegitura etikoa indartzen aktiboki laguntzen dute, zerbitzu publikorako bokazioa eta orientazioa garatuz eta gipuzkoar herritarren funtzio publikoaren eta erakundearen beraren eta bere foru sektore publikoa osatzen duten erakunde zuzentasunean duten konfiantza indartuz.

1.3.

Jokabide Kodea onartzeko helburua ondorengo puntuetan azaltzen da:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren ardatz gisa sartzea, 2016ko martxoaren 1eko Gobernu Kontseiluko akordioaren bidez onartutakoa.
- b) Foru enplegu publikoaren eremuan azpiegitura etiko bat garatzea, foru langile publikoek euren funtzioak burutzean eredu garrantzitsuan, objektibotasun eta bikaintasuna nabarmenduko duena.
- c) Gipuzkoar gizartearen zerbitzupuan dauden foru langile publikoen jokabide onaren gida moduan jardutea, hau baita bere zerga ekarpenen bidez langile horien euren lan profesionalagatik jasotzen duten ordainsaria ere oinarritzen duena.
- d) Foru enplegu publikoaren inpartzialtasun, profesionaltasun, zuzentasun eta herritarren zerbitzuaren irudia indartzea.
- e) Gipuzkoarrei gertuko eta harreman zuzeneko zerbitzu publikoa bermatzea, bereziki herritarrak aukeratzen duen hizkuntza erabiliz, lana batez ere Euskaraz garatuz.
- f) Kode honetan jasotako baloreen bidez foru langile publikoek herritarren zerbitzurako bokazioa eta orientazioa sustatzea.
- g) Foru enplegu publikotik berdintasuna sustatzea, tratu diskriminatzailea ekidinez eta aniztasun kultural, erlijiosoa eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz, baita beste edozein egoera ere.
- h) Balore etikoen eta jokabide arauen eta kudeaketa onaren eta jarduera profesionalaren printzipioak errespetatuz eta sustatuz herritarrek foru langile publikoengan eta ondorioz Foru Administrazioarengan eta bere sektore publikoko erakundeengan, zerbitzua ematen diotenei, duten konfiantza publikoa indartu.

2. IZAERA

2.1.

Kode honek balore etikoak eta jokabide arauak eta kudeaketa onaren eta jarduera profesionalaren printzipioak zerrendatzen ditu, prebentzio eta orientazio izaera dutenak foru langile publikoek jarduera profesionala eraginkorki garatzeko, eta Foru Administrazioaren eta bere erakunde sektore publikoko erakundeen kultura etikoa hobetzera zuzendutakoa.

2.2.

Kode hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzean egin da, eta era berean, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 52-54 artikuluetan ezarritakoari jarraiki, testu honetan bertan aurreikusitako printzipioak erabat errespetatuak eta zehaztuak direnak balore etikoei, kudeaketa onaren printzipioei dagokienean, baita jokabide araei eta jarduera profesionalari dagokienean ere.

2.3.

Foru antolakundeen azpiegitura etikoaren prebentzio eta hobekuntza izaera dela eta, Kode honek izaera axiologikoko berezko orientazioa du eta foru enplegu publikoaren deontologia profesionala indartzeko beharrezko markarekin, eta beraz, ez du langile publikoei ezarri ahal zaien diziplina edukirik, EBEParen 52. artikuluan in fine ezarritako salbuespenekin, eta bereziki, bertan jasotako alderdietan. Dena den, jokabide ez-egokiak gaitzesten ditu eta halabeharrez publikoak izan behar diren iradokizunak, oharrak eta gomendioak egitea aurreikusten du.

2.4.

Langile publiko baten jarrera, jokabidea edo ez-egiteagatik diziplina ardurak sortu badaitezke, atxikita dagoen administrazio unitatearen arduradunak edo, hala badagokio, Erakundearen Etika Batzordeak, eskumena duen organoari gaia helaraziko dio, dagokion diziplina espedientea abiaraztea egokia den edo ez ebaluatu dezan.

2.5.

Kode hau derrigorrez bete behar dute foru langile guztiek, testu honetan ezarritako terminoetan.

2

Balore etikoak eta jokabide arauak

A. BALORE ETIKOAK

1. BALORE ETIKOAK. AZALPENA

1.1.

Ondoren adierazten diren baloreak foru langile publikoak euren jarduera profesionaletan eta sail, erakunde edo administrazio unitateetan gidatu eta orientatzen dituzte. Foru langile publikoek balore horiek euren erabakiak hartzeko prozesuetan, foru politiken garapenean eta kasu bakoitzean erabiltzen diren kudeaketa prozedura edo sistema ezberdinetan.

1.2.

Foru langile publikoek euren funtzioetan eta bereziki kargu publikoekin, beste langile publikoekin edo herritarrekin dituzten harremanetan, balore horiek euren jarduera profesionalaren oinarri gisa aldarrikatu ditzakete, horien araberrako tratua jaso beharko dutelarik.

1.3.

Ondoren adierazten diren baloreek ondorengo helburuak lortu nahi dituzte oinarrian:

- a) Langile publikoen herritarren zerbitzuko bokazioa eta orientazioa sustatzea.
- b) Erakundearen parte izatea eta funtzio publikoak burutzean profesionaltasuna garatzea, baita zerbitzu publiko gisa bikaintasuna bilatzea ere.
- c) Foru enplegu publikoan erakundea legitimatzen duen eta herritarren horrengan duten konfiantza indartzen duen azpiegitura etikoaren sistema egonkortzea.

2. BALORE ETIKOAK ZERRENDATU ETA ZEHAZTEA

Foru langileek euren jokabide profesionalean jarraitu beharreko Balore Etikoak, baita euren edukia zehazteari dagokionean ere, honakoak dira:

2.1. ZUZENTASUNA

Zuzentasuna funtsezko balore bat da zerbitzu publikoan, kudeaketa onean eta foru erakundeak indartzean, izan ere, langile bakoitzak profesionalki modu osoan jardutean herritarrek enplegu publikoaren erakundearen eta foru Administrazioaren duten konfiantza indartzen du. Beraz, foru langile publikoaren jarrera etiko bikaina bere konpromiso eta betebeharrak zorrotz betez, edozein funtzio publiko gauzatzean bere lan profesionala duintzen du, baita foru enplegu publikoaren irudia eta gipuzkoar erakundeekiko konfiantza publikoa ere.

2.2. EREDUGARRITASUNA

Foru langile publikoaren jarduera profesionalak Foru Administrazioaren zein lurraldearen irudian ere eragina du. Ondorioz, bere jokabide profesionalak jokabide eredugarria izango du gidaritzat, langile publikoaren praktika onek gizartearen kulturaren eta arauen gizarte

barneratzearen aldaketa errazten duten heinean. Foru Aldundiaren irudi instituzionala kaltetzen duen edo erakundeak ordezkatzeko duen entzute publikoa edo kapital soziala narriatzen duen eredugarritasun falta oro gaitzetsi beharko da eta Kode honetan ezarritakoaren arabera zuzendu.

2.3. ZINTZOTASUNA ETA INTERESIK EZA

Foru langile publikoaren jardunak interes publikoa betetzera eta gipuzkoar herritar guztien interesetara bideratuko du modu zorrotz eta garden baten bidez. Interes publiko eta pribatuaren arteko gatazka edo gatazka zantzuaren kasuan, foru langile publikoak Erakundearen Etika Batzordeari berehala jakinarazi beharko dio. Egoeren edo ematen diren gomendioaren arabera, ezin izango du parte hartu, zuzenean edo zeharka, dagokion prozeduran. Foru langile publikoek ez dute euren zintzotasuna zalantzan jar dezaketean opari edo onurarik onartuko, edota bere lana dela eta esku hartu behar duen prozedura edo jardunetan bere lan jarduerara baldintzatu dezakeen edo baldintzatu dezakeela ematen duenean. Horren gaineko zalantzarik izatekotan, eskumena duen organora helarazi beharko dio dagokion bideetatik.

2.4. INPARTZIALTASUNA ETA OBJEKTIBOTASUNA

Inpartzialtasuna da foru enplegu publikoaren instituzioaren izateko arrazoia, eta, beraz, bere jarduerara profesionala eragin eta orientazio politikoetatik eta bestelakoetatik urrun egon beharko du, Exekutiboetatik eta beronen gobernu jardueretatik gorde beharreko kolaborazio profesionalari dagokionean izan ezik, erakundearen leialtasunetik, interes orokorreko konpromisotik, zerbitzu publikotik eta legezketasunaren defentsa zorrotzetik beti. Era berean, jarduerara publikoak egitean foru langile publikoek interes orokorreko exijitzen duten objektibotasunaren arabera jardun beharko dute, herritarren zerbitzura beti. Horretarako, euren txosten eta proposamenak kasu bakoitzaren analisi zorrotzean oinarrituko dira. Objektibotasun hori bereziki intentsua izango da botere publikoek erabaki zehatzak hartzeko inpartzialtasuna zaintzea bereziki exijitu beharreko kasuetan parte hartu behar dutenean.

2.5. BIKAIN TASUN PROFESIONALA

Foru langile publikoek euren lanpostuetatik sortutako lanak egingo dituzte, bikaintasuna lortzea helburu duten profesionaltasun handiko irizpideekin, modu horretan zerbitzu publikoaren bokazio sendoa zabaltzeko, herritarrei zerbitzu hobekak emateko xedez. Horretarako, foru langile publikoek etengabe garatu eta hobetuko dituzte euren eskumen profesionalak Foru Administrazioak diseinatu dituen formazio programen bidez, bere profil profesionala optimizatzeko eta bere lanpostuari esleitutako funtzio eta lanak egoki burutzeko. Era berean, kolaborazio lana garatuko dute, organizazio konpromisoa eta testuingurua egitean, baita talde izpiritua eta garapen profesionala ere, erakundearen errendimendu eta emaitza hobeei laguntzeko foru zerbitzu publikoetako erabiltzaileen onurarako.

2.6. ERAGINKORTASUNA

Errekurtsoen kudeaketa eta foru langile publikoen kudeaketa ekonomiko-finantziarioa eraginkortasunaren ideiak gidatuko ditu, ondasun edo errekurtsu publikoen erabilera eragiltzarik egin gabe eta euren erabilera optimizatuz. Eraginkortasun helburu hori berrikuntza edo hobekuntza jarraituko prozesuen bidez sustatuko da, eta politika publikoen

ebaluazioa, baita langile publikoen lanaren ebaluaketa ere, oinarrizko zutabe dituenak. Arreta berezia emango zaio Foru Administrazioaren finantza iraunkortasuna bermatzeari, eta etorkizuneko gobernuen ekintza edo etorkizuneko belaunaldiak ez hipotekatzeari.

2.7. ERRESPETUA

Foru langile publikoek euren funtzioen bidez bizikidetzatza, elkartasuna eta tolerantzia nabarmentzen duen laneko giroa, pertsonal eta profesionala, sustatuko dute, elkarrekiko errespetua, pluralismoa eta profesional ezberdinen arteko kolaborazioa indartuz. Era berean, herritarrak, Administrazio Publikoen zerbitzurako gainontzeko langileak eta kargu publikoak pertsona orok merezi duen kortesia, zuzentasun, errespetu eta duintasunarekin tratatuko dituzte. Beraz, ez dute mespretxuzko terminoen edo edozein motatako diskriminazio praktiken (bereziki generoaren gainekoak, baina baita sinesmen, ideologia, sexu orientazioa, arraza, ezgaitasuna edo beste edozein ere) erabilera dakarten jarrera edo jardunik erabiliko.

B. BALORE ETIKOEKIN LOTUTAKO JOKABIDE ARAUAK

1. ZUZENTASUNA

- a) Foru langile publikoek euren jarduera profesionalak burutzean Kode honetan ezarritako jokabide balore eta arauen arabera jokabide etikoa izango dute.
- b) Euren funtzioak osotasunez burutzen dituztela bermatzeko, foru langile publikoek euren ebazpen proposamenak edo euren txosten edo jarduerak dagozkion datu teknikoek bidez justifikatuko dituzte.
- c) Bereziki, euren funtzioak burutzean eragina izan dezaketen eta euren jarduera profesionalaren osotasunaren gaineko arrazoizko zalantzak planteatu ditzaketen kanpo eraginak ekidingo dituzte. Bereziki, pertsona edo erakunde batzuen gaitortasunaren faboritismo susmoa eragin dezaketen jarduerak ekidingo dituzte.
- d) Era berean, euren lanpostu publikoagatik edo euren funtzioak burutzean eragina izan dezakeen edozein abantaila ukatu edo ekidingo dute, zuzena edo zeharkakoa, edozein pertsona edo erakundeak proposatutakoa

2. EREDUGARRITASUNA

- a) Foru langile publikoek euren jarduera profesionala garatzean une oro aintzat hartu behar dute azken helburu gisa herritarrenganako zerbitzua duen erakunde edo entitate batean lan egiten dutela.
- b) Euren jarrera profesionalak jokamolde eredugarria izan behar du beti, euren jarduera eta ekintza zehatzetan islatuko dena, bereziki hartzaile zuzen edo zeharkakoak herritarrak diren horietan.

- c) Foru langile publikoek, euren lanpostuetatik, euren erakundeetan giro etikoa sustatuko dute eta bertan lan egiten duten gainontzeko langileen erreferentzia izango dira, eta inolaz ere ez dute erakundearen irudiari kalte egin diezaioketen jarrera izango edo jardunik egingo. Zaintza etikoaren jarrera berezi hori, lidergo terminoetan, ardura lanpostuak dituzten eta euren menpe beste langile batzuk dituzten langile publikoek izan beharko dute.
- d) Edozelan ere, saiaturiko dira euren jokabide eta jarrerak parte diren erakundearen legitimitatea indartzea, eta era berean, kalterik txikiena ere pairatzea saihestuko dute.
- e) Foru langile publikoek, erakundearen eredugarritasuna eta irudia bermatzeko asmoz, ez dute foru administrazioak edo euren erakundeek, burutzen dituzten jarduerak direla eta euren esku jartzen dituzten ondasun edo zerbitzuen erabilera okerra egingo. Era berean, gauzatzea murriztu eta produktiboa ez den eta herritarrei edo gainontzeko langileei bere funtzioen burutzearen irudi okerra ematen duen jarrera mota oro ekidingo dute.
- f) Horretarako, lan ordu eta espazioetan euren aparatu mugikor pertsonalen eta sare sozialen edo erabilera pribaturako Interneten arrazoizkoa eta etikoa den erabilera egingo dute. Zentzu berean, lan bileretan edo formazio ekintzetan eta erakundeei edo herritarrei egindako elkarrizketa edo harreretan, aparatu mugikorrek eraginik ez izaten saiaturiko da, kortesia, irudi eta eraginkortasun instituzionala dela eta.

3. ZINTZOTASUNA ETA INTERESIK EZA

- a) Foru langile publikoaren jardunak interes publikoa guztiz betetzera eta gipuzkoar herritar guztien interesetara bideratuko du.
- b) Interes publiko eta pribatuen arteko gatazka edo gatazka zantzen kasuan, langile publikoak eskumena duen erakundeari edo aginteari berehala jakinarazi beharko dio. Berme organoari ere kontsulta helarazi ahalko dio.
- c) Edozelan ere, aurreko letran adierazitako egoeraren bat emango balitz, bereziki interes publiko eta pribatuen arteko edozein gatazka edo gatazka zantzu, prozedura horretan parte hartzeari uko egin beharko dio, ezar daitekeen araudiaren arabera.
- d) Era berean, ez dute betebeharrak ekonomikorik hartuko edo finantza edo ondare eragiketetan edo negozio juridikoetan parte hartuko pertsona edo erakundeekin interes gatazka sor daitekeenean, argia edo itxuraz, langile publiko izaeratik sortutako jarduera profesionalekin lotuta.
- e) Interes gatazka sortzen da foru langile publikoak bere lanpostuko edo bere jarduera profesionaleko eremuko interesak eta berezko interes pribatuak edo izaera publikokoak, zuzeneko senideenak, izatezko bikotearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek nolabaiteko harremana izan duten enpresa edo erakundeenak, aldi berean eman daitezkeen gaiekin lotutako prozeduretan parte hartzen duenean.

- f) Interes gatazka zantzua ematen da foru langile publikoak bere eskumenekoak diren gaiekin lotutako prozeduretan jarduteak edo esku hartzeak bere interes pertsonaletan, bere senideen interesean edo berarekin lotutako hirugarrenean, pertsona horiek nolabaiteko harreman mota izan duten enpresa edo erakundeen interesetan, eragina ez dutela uste duenean, baina objektiboki jardun edo esku hartze horrek zuzenean eta modu larrian kaltetu dezakeenean herritarrek erakundeari buruz duten objektibotasun irudia
- g) Foru langile publikoek ez dute oparirik, gonbidapenik, bidairik, janaririk edo konpentsazio ekonomikorik onartuko hitzaldiak emateagatik edo komunikabideetan parte hartzeagatik, berariaz euren lanpostuko berezko funtzioak gauzatzeari lotutako jarduerak direnean, eta modu berean ez dute euren zintzotasuna zalantzan jar dezakeen onurarik onartuko, edo erabakiak hartzea baldintzatu dezakeen edo baldintzatu dezakeela ematen duen bere eskumeneko gaietan parte hartuko. Berme organoak, kontsulta edo kexen bidez, opari, konpentsazio edo onura horiek onartu daitezkeen kasuak ezarriko ditu. Salbuespen horiek Kode honen Ezarpen Gidan berariaz jasoko dira.
- h) Edozelan ere, foru langile publikoek, erakundearen irudia babesteko asmoz, euren ardura publikoen eremu zehatzean kontratatatuak izan diren edo objektiboki kontratatatuak izan daitezkeen enpresa edo partikularren opari, gonbidapen, kongresuetan edo hitzaldietan parte hartzeko eskaintzak ukatuko dituzte. Oparia edo gonbidapena emango balitz, berehala foru administrazioaren edo sektore publikoko erakundearen esku jarri beharko litzateke, dagokiona egiteko.
- i) Era berean, foru langile publikoek gertuko senideak edo izatezko bikoteak aurreko letretan aurreikusitako terminoetan opariak edo gonbidapenak jasotzen ez dituztela bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte.
- j) Horren gaineko edozein zalantza berme organoko langile publikoari helarazi beharko zaio ezartzen diren bideetatik, eskaria konfidentzialki izapidetzeko eskatu ahalko duela.

4. INPARTZIALTASUNA ETA OBJEKTIBOTASUNA

- a) Inpartzialtasuna funtzio publikoaren existentzia balorea da, langile publiko guztiei ere ezarri ahal zaiena: alde batetik, langile publikoen jarduera babestu edo bermatzen du jarduera politikoaren edo beste izaera bateko jardueren eraginaren aurrean; eta beste alde batetik, jarduera profesional subjektiboak kanpoko premisetatik urrun egoteko gidatzen du, modu horretan bermatuz profesionaltasun eta neutraltasun irizpideetatik bakarrik bideratzea.
- b) Foru langile publikoek euren jarduera publikoetan objektibotasunez jardun beharko dute herritarren interes orokorren defentsan. Horretarako, euren funtzioak burutzean horien bidez erakunde publiko edo pribatuei edo pertsona fisiko zehatzei mesede-tratu edo onura zuzena edo ez-zuzena sor dezakeen jarduera batean arazoitu gabeko edo objektibatu gabeko moduan eragina duten edo susmoa edo irudia eman dezaketen praktika eta jardun guztiak ekidingo dituzte.

- c) Foru langile publikoek, informazio publikoaren gardentasunari kalterik egin gabe, euren jarduera profesionalen arabera ezagutzen dituzten gai guztietan erreserba betebeharra mantenduko dute, eta, jokoan dauden interesak direla eta, baita jorratutako helburuaren berezitasunengatik ere, jarrera hori modu berezian izatea exijitzen dutenak, eta ezin izango dute informazio hori euren edota hirugarrenen onurarako erabili. Edozein kasutan, konfidentzial bezala klasifikatutako gai guztiak sekretupean mantenduko dituzte.
- d) Jarduera objektibo horrek, bereziki, sarrera, sustapen eta lanpostuen hornikuntza, kontratazio publikoa, diru-laguntzen izapidetzea edo publizitate eta konkurrentzia askeko printzipioak gidatzen duen edozein legezko exijentzia betetzea estali beharko du, baita euren funtzioak betetzean inpartzialtasuna babestea ere.
- e) Langile publikoak ezin izango du bere langile publikoko izaera erabili edozein motatako abantaila izateko edo nahi izateko, txikia bada ere, erakunde publikoetan zein pribatuetan.
- f) Foru langile publikoek oinarritzen duen arrazoi objektiborik gabe administrazio izapide bat azkartzeko edo ebazteko eragitea, zuzenean edo zeharka, dakarren ekintza edo ez-egintza mota oro ekidingo dute, horrek beste kargu edo langile publiko baten edo bere gertuko inguru familiar edo sozialaren onurarako edo hirugarrenentzat kaltea suposatuz dezakeen.
- g) Foru langile publikoen ebazpen proposamenak eta txostenak egoki arrazoituak egon beharko dira eta bakarrik teknikoak diren irizpideak jarraituz egin, interes publikoa eta erakundearen papera babesteko xedez.

5. BIKAINTRASUN PROFESIONALA

- a) Herritarrei zerbitzu hobek emateko xedez, foru langile publikoek euren lanpostuen funtzioetatik sortutako lanak egingo dituzte, euren funtzio publikoen garapenean bikaintasuna lortzeko profesionaltasun handiko irizpideak jarraituz.
- b) Horretarako, foru langile publikoek etengabe garatu eta hobetuko dituzte euren eskumen profesionalak, euren karrera profesionala zabalduz, Foru Aldundiak diseinatzen dituen formazio programen bidez, bere profil profesionala optimizatzeko eta bere lanpostuari esleitutako funtzio eta lanak egoki burutzeko.
- c) Era berean, kolaborazio lana garatuko dute, organizazio konpromisoa eta testuingurua egitean, baita talde izpiritua eta garapen profesionala ere, erakundearen errendimendu eta emaitza hobeei laguntzeko foru zerbitzu publikoetako erabiltzaileen onurarako.
- d) Hautaketa askeko prozeduraren bidez hornitzen diren ardurak bereziko foru lanpostuetan aritzeko, lanpostu hori betetzeko eskatzen diren gutxieneko eskumenak badituela ziurtatu beharko du pertsonak. Horretarako, Funtzio Publikoko Zerbitzuak hautaketa askeko langile publikoek aurretik eskumenak egiaztatuzeko sistema bat gainditzeko irizpideak hartuko dituzte, funtzio horiek burutzeko egokitasun profesionala bermatzen duena.

- e) Foru langile publikoek, era berean, eskumenak ebaluatzeko prozeduretan edo, hala izatekotan, Foru Aldundiak martxan jartzen dituen kudeaketa hobetzeko beste prozeduretan aktiboki parte hartu beharko dute. Zentzu horretan, bidaltzen zaizkien galdetegiak eta beste edozein dokumentazio bete beharko dute, gai horren inguruko tailer eta formazio programetan parte hartuko dute eta, era berean, euren sail, erakunde edo unitate administratiboko lanpostuekin lotuta esleitzen zaizkien ebaluazioak burutuko dituzte.
- f) Foru langileen edo sektore publikoko erakundeen kurrikulum profesionalari dagozkion langile publikoaren espediente pertsonalean ez dauden datu osagarriak, bide publikoetatik hedatzen denean, benetakoak eta egiaztagarriak izan beharko dira. Jokabide hau ez betetzeak dagozkion erakunde edo entitatearen irudiarentzat kalte larria suposatzen du, pertsonaren izena eta sinesgarritasuna galtzeaz gain.
- g) Langile publikoek Foru Administrazioak hurrengo urteetan langileen zahartzea, erakundearen lanpostu nuklear batzuen afekzioa eta ezagutza eta gaitasun horiek lanpostu estrategiko horiek beteko dituzten langile publiko berriei pasatzearen ondorioz martxan jartzen dituen ezagutza kudeatzeko prozesuetan aktiboki kolaboratuko dute.

6. ERAGINKORTASUNA

- a) Foru langile publikoek errekurtsio publikoak eraginkorki kudeatuko dituzte, oinarri hartuta errekurtsio horiek ez direla berezko baliabideak eta funtzionamendu egokia herritarrenganako zerbitzuekin lotuta dagoela, euren zergekin bere existentzia, mantentzea eta erabilera ordaintzen dutenak.
- b) Lan publikoen garapena modu konprometituan eta arduratsuan egingo da, erakundeari dedikatutako lan denborarekin lotutako emaitza eraginkorrak materialki betez, legeak eta arauak ezarritakoaren arabera.
- c) Langile publikoek ere, ondasun eta errekurtsio publikoen erabileran xahutzea ekidingo dute, ardura eta proportzionaltasun zentzuarekin kudeatuz eta une oro ondo mantentzen saiatuz.
- d) Eraginkortasun helburu hori berrikuntza edo hobekuntza jarraituko prozesuen bidez sustatuko da, eta politika publikoen ebaluazioa oinarritzko zutabe duenak. Arreta berezia emango zaio Foru Administrazioaren finantza iraunkortasuna bermatzeari, eta etorkizuneko gobernuen ekintza edo etorkizuneko belaunaldiak ez hipotekatzeari.
- e) Foru Administrazioak foru langile publikoei esleitutako baliabide publikoen erabilera euren jarduera eta funtzio publikoak gauzatzeari bakarrik lotuta dago. Hedatutako Erakundearen Zuzentasun Batzordeak aurretik baloratuko duen kasu bakoitzaren behar bereziaz aparte, euren esku jarritako baliabide publikoak behar pribatu, pertsonalak,

familiarrak, gertuko pertsona edo profesionalenak, asetzeko erabiltzea ekidingo da, interes publikorako ez direnak.

- f) Foru Administrazioaren sailak eta bere sektore publikoko erakunde ezberdinak langile publikoek kudeaketa hobetzeko proposamenak egiteko espazio eta bideak sustatuko dituzte, euren unitate edo prozeduren eraginkortasun eta ekonomia hobetzera zuzendutakoak, horiei motibatutako erantzuna bermatuz, aukera arrazoiak direla eta ukatzen badira ere.
- g) Ardura eremuan esleitutako politika publikoen diseinu, ebazpen eta kudeaketan Foru Aldundiaren finantza iraunkortasuna babestu eta bermatuko dute eta etorkizuneko gobernuak edo hurrengo belaunaldiak hipotekatzea ekidingo dute.

7. ERRESPETUA

- a) Besterenganako errespetua bizikidetzeta eta organizazio giro onaren oinarria da, baita Foru Administrazioan edo bere erakundearen sektore publikoan lan egiten duten edo berarekin erlazionatzen diren gainontzeko pertsonen tratamendu egokia ematea ere.
- b) Beraz, foru langile publikoek euren funtzioen bidez bizikidetzeta, elkartasuna eta tolerantzia nabarmentzen duen laneko giroa, pertsonal eta profesionala, sustatuko dute, elkarrekiko errespetua, pluralismoa eta profesional ezberdinen arteko kolaborazioa indartuz. Beraz, ez dute mespretxuzko terminoen edo edozein motatako diskriminazio praktiken (bereziki generoaren gainekoak, baina baita sinesmen, ideologia, sexu orientazioa, arraza, ezgaitasuna edo beste edozein ere) erabilera dakarten jarrera edo jardunak erabiliko.
- c) Era berean, euren instituzio harremanak eta harreman pertsonalak, kargu publikoekin edo beste langile publikoekin izan, errespetua, kortesia, adeitasuna, enpatia eta baretasun ideia jarraituko dute, une oro beste pertsonarekiko errespetuzkoa ez den edozein tratu edo gaitzespena edo iraina ekidinez.
- d) Langile publikoek arreta berezia jarri beharko dute herritarrekiko eta zerbitzu publikoko erabiltzaileekiko harremanetan. Eredu honetan, foru langileek ematen duten zerbitzu publikoaren azken arrazoiak herritarrak direnez, edozein kasutan kortesia, zuzentasun eta errespetuz tratatuko dira, eta bereziki, pertsona orok merezi duen duintasunez, baita adeitasun, enpatia eta baretasunez.
- e) Modu berean, foru langile publikoek arreta berezia izango dute, dimentsio etikotik, bereziki ahulak diren kolektiboekin harremanak izatean, gizarte arrazoiak, arrazoi ekonomikoak edo edozein motatako arrazoiak direla eta, beharrezkoak diren ekintza positiboko neurriak hartuz eta pertsona horiekiko tratuan sentsibilitate eta enpatia berezia helaraziz, erakundeak sustatzen dituen politika publikoen eremuan.
- f) Edozelan ere, beste langile publikoei edo Foru Administrazioarekin harremana duen beste edozein pertsonari lan-jazarpena edo jazarpen pertsonala edo eraso nabarmeneko egoerak ekidingo dira. Egoera horietakoren bat emango balitz, kaltetutako pertsonak

edo datu objektiboak eman ditzakeen beste edozein langile publikok administrazio unitatearen arduradunari berehala helaraziko dio, eta edozein kasutan berme organoari, dagokion administrazio zigor prozedura abiaraziz. Langile publikoaren kexak, berme organoaren arabera, oinarria izango balu, informazio espediente bat ireki daiteke, hala badagokio, dagozkion zigor arduren exijentzia abiarazteko.

- g) Era berean, foru langile publikoek ez dute egingo edozein motatako diskriminazioa suposatzen duten praktiken jarrera edo jarduera (generoa, ideiak, ideologia, sexu orientazioa, arraza, ezgaitasuna edo beste edozein). Bereziki, foru langile publikoak genero, sexu orientazioa, arraza, ezgaitasuna, sinesmenak edo beste edozein arrazoigatik deskalifikatzailea izan daitekeen ahozko edo ez ahozko jarrerak, ekintzen edo ez egiteen bidez, izatea ekidingo du.

3

*Kudeaketa onaren
printzipioak
eta jarduera
profesionalaren
arauak*

A) FORU LANGILE PUBLIKOEI EZARRI AHAL ZAIKIEN KUDEAKETA ONAREN PRINTZIOIOAK

1. KUDEAKETA ONAREN PRINTZIOIOAK: KONTZEPTUA

Kudeaketa Onaren Printzizioak foru langile publikoek zerbitzua ematen duten lanpostuaren edo erakundearen funtzioak gauzatzean gida edo orientazioa helburu duten zuzentarauen multzoa dira, programatutako emaitzak edo ondorioak betetzeko xedez, baita herritarrei ematen zaizkien foru zerbitzu publikoen kalitatea eta eraginkortasuna etengabe hobetzeko prozesua aurrera eramateko ere.

2. KUDEAKETA ONAREN PRINTZIOIOEN ZERRENTA

Hauek dira foru langile publikoek euren jarduera profesionalean jarraitu beharreko kudeaketa onaren printzizioak:

2.1. GARDENTASUNA

Gardentasuna Foru Administrazioaren eta bere sektore publikoko erakundeen kudeaketa sistemaren parte den printzipioa da. Foru langile publikoen jardunen gida izango da gardentasuna bere adiera zabalenean, betiere herritarren oinarritzko eskubideak errespetatuz eta legearen barruan. Gardentasuna, publizitate aktiboaren dimentsioan, oinarritzko helburutzat izango du herritarrei garrantzia daukan edo eskatzen den informazio oro helaraztea, indarrean dagoen araudiaren arabera. Era berean, herritarrek eta erakundeek egindako informazio publikoko eskariak azkar eta modu arrazoituaren erantzungo dituzte, erakundearen eta administrazio prozedura ezberdinetan gardentasunaren kultura garatuz.

2.2. DATUEN IREKIERA

Gardentasun Politika-publizitate aktibo baten garapen eraginkorretik abiatuta, foru langile publikoek datu publikoen irekiera eraginkorra sustatuko dute (Open Data), ezagutzen den informazioaren eraldaketa bikaina egiteko aukera ematen duena, gipuzkoarren bizi-kalitatea hobetzera eta Lurralde Historikoan hazkunde ekonomikoa sustatzera bideratutakoa.

2.3. KUDEAKETA ETA BERRIKUNTZAREN KULTURA

Foru langile publikoek euren jarduera profesionalen langile publikoen gaitasunak garatzea eta proiektuetan, sormena eta iniziatiban inplikazio handiagoa pixkanaka sartzeko suposatzen duen kudeaketaren kultura aurreratua garatuko dute, baita publikoaren eremuan berrikuntza praktiken sustapena ere. Euren jarduera profesionalean Administrazio digitalaren garapenaren aldeko apustu eraginkorra egingo dute, prozeduren sinplifikazioa eta herritarrei eta enpresei administrazio kargak ezabatzea. Esku hartzen duten prozeduretan herritarren parte hartzea eta gobernu irekiaren teknika guztiak sustatuko dituzte.

2.4. EUSKARAREN SUSTAPENA ETA ERABILERA

Foru langile publikoek, orokorrean, euskara izango dute lan eta harreman hizkuntza, eta Foru Administrazioan euskararen erabilera modu aktiboan sustatuko dute, euren jarduera profesionalen garapenean, bereziki herritarrekiko eta euren elkarte ehunarekiko harremanetan. Era berean, euren jarduerak burutzean, hizkuntza ko-ofizialtasuna errespetatuko dute eta hizkuntza arrazoiengatik diskriminazioa sortzen duen edozein jarrera ekidingo dute, edozelan ere

2.5. ARDURA PROFESIONALA

Euren jarduerak burutzean, foru langile publikoek ardura profesional osoarekin jardungo dute beti. Horrek esleitutako funtzioen dedikazio berezia dakar, gai edo administrazio izapide bakoitzak suposatzen dituen interes eta jarrerak baloratuz beti, proposamen edo txostenak arrazoituz eta, edozelan ere, funtzio horiek egoki ez betetzeak edo euren jarrerak sortzen dituen ondorioak onartzuz.

B) JARDUERA PROFESIONALAREN ARAUAK KUDEAKETA ONAREN EREMUAN

3.1. GARDENTASUNA

- a) Foru langile publikoen jardunen gida izango da gardentasuna bere adiera zabalenean, betiere herritarren oinarrizko eskubideak, datu pertsonalen babesa errespetatuz eta legearen barruan.
- b) Gardentasuna, publizitate aktiboaren dimentsioan, oinarrizko helburutzat izango du herritarrei garrantzia daukan edo eskatzen den informazio oro helaraztea, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- c) Era berean, foru langile publikoek diligenza bereziarekin jardungo dute, erantzun azkarrak, eraginkorrak eta arrazoiak bermatuz, herritarrek eta euren erakundeek Foru Administrazioari informazio publikoa eskatzen diotenean, kasu bakoitzean existitzen diren mugak, jokoan dauden eskubideak kontuan hartuz, eta modu mugatzailean ez onartzeko arrazoiak eta muga horiek interpretatuz, herritarrek jarduera publikoaren kontrola errazteko asmoz.
- d) Foru langile publikoek modu eraginkorrean garatuko dute gardentasunaren kultura erakundeetan eta administrazio prozeduretan, euren jarduera profesionala garatuz aintzat hartuta izapidetzen dituzten espedienteak informazio publikoaren eskariaren helburu izan daitezkeela eta herritarrek aztertu ditzaketela.
- e) Gardentasunak ez dakar, inolaz ere, foru langile publikoak bere jarduera profesionala dela eta ezagutzen duen informazioa erreserbatzeko betebeharra aktibo ez mantentzea, ezta hura erabiltzea bere onura pertsonalerako edo hirugarrenen onurarako, ezta horrela ezartzen den gaitan konfidentzialtasuna urratzea ere.
- f) Zentzu honetan, gardentasun printzipioaren ondorioak sailaren barne kudeaketa,

administrazio unitatea edo foru langile publikoak zerbitzua ematen duen erakunderaino helduko dira, modu horretan kudeaketa publikoaren eta erakundearen kulturaren hobekuntza ekarriz.

- g) Jarduera gardenaren gida izango da herritarrek erakundeengan duten konfiantza harremana hobetzea, horiek Foru Administrazioaren jarduera publikoaren kontrola izateko aukera ematea eta modu horretan, kontuen aitorpena bermatzea.
- h) Gardentasunetik eta informazio publikoa lortzeko eskubidetik sortutako betebeharrak betez, baita gardentasunaren gainontzeko dimentsioetan ere, euskararen erabilera bereziki zainduko da.

3.2. DATUEN IREKIERA

- a) Gardentasun Politika-publizitate aktibo baten garapen eraginkorretik abiatuta, foru langile publikoek datu publikoen irekiera eraginkorra sustatuko dute (Open Data), datu pertsonalen babesa eta pertsonaren oinarrizko eskubideak errespetatuz, betiere, ezagutzen den foru informazio publikoaren eraldaketa bikaina egiteko aukera ematen duena, gipuzkoarren bizi-kalitatea hobetzera eta Lurralde Historikoan hazkunde ekonomikoa sustatzera bideratutakoa.
- b) Era berean, informazio publikoa berrerabiltzea sustatuko dute, hazkunde ekonomikoa eta lana hobetzeko asmoz.
- c) Foru langile publikoek urteko konpromisoak eta agintaldikoak betetzen lagunduko dute, aurreko ataletan jasotako erronkak eraginkor bihurtzeko datuen irekierari zein horiek berrerabiltzeari dagokionean.
- d) Modu berean, konpromiso hauen ebaluaketa sustatuko dute.

3.3. KUDEAKETA ETA BERRIKUNTZAREN KULTURA

- a) Foru langile publikoek euren jarduera profesionalen garatzea eta proiektuetan, sormena eta inizatibian inplikazio handiagoa dakarren kudeaketaren kultura garatuko dute, baita publikoaren eremuan berrikuntza praktiken sustapena ere.
- b) Orokorrean, foru langile publiko guztiek administrazio elektronikoa modu eraginkorrean garatzearen alde aktiboki lan egingo dute.
- c) Era berean, prozedura eta izapideak sinplifikatzea sustatuko dute, hazkunde ekonomikoa sustatzeko eta zama burokratikoak ezabatzeke.
- d) Esku hartzen duten prozeduretan herritarren parte hartzea eta gobernu irekiaren teknika guztiak sustatuko dituzte.
- e) Informazio teknologiak eta komunikazioak bereziki erabiliko dituzte, baita administrazio elektronikoa ere, euren funtzioen egunerokotasunean, euren jarduera paperezko espedienteen izapidetzea epe laburrean ezabatzerantz bideratuz.

- f) Modu sistematikoan sustatuko dute berrikuntza, bai barne edo gobernu mailan, non aktore nagusiak izan behar diren, baita enpresa eremuan eta zerbitzuak ematean kanpoko sustapenean ere.
- g) Foru langile publikoek berrikuntzaren kultura garatuko dute euren sailean, unitatean edo erakundeetan, sormena sustatuz eta kudeaketa publiko modu berrien esperimentazio arduratsua elikatuz, hobekuntzak sortzen dituztenak edo behintzat ikasketa kolektiboa sortzen duten kudeaketa formulak saiatzen dituztenak.
- h) Era berean, euren erakundeak momentu bakoitzean planteatzen diren metodo eta erronken eraldaketa eta egokitasun jarraituko kultura aurrera eramango dute.
- i) Eta modu aktiboan parte hartuko dute Foru Administrazioak martxan jartzen dituen ezagutza kudeatzeko prozesuetan, erakundeetan giltza diren lanpostuak berrezartzeko asmoz, hurrengo urteetan emango diren erretiratze prozesu handien ondorioz.

3.4. EUSKARAREN SUSTAPENA ETA ERABILERA

- a) Foru langile publikoek modu aktiboan sustatuko dute euskararen erabilera lan eta zerbitzu hizkuntza gisa Foru Aldundian, erakundeen arteko harremanetan beste botere publikoekin edo euskara hizkuntza ofizial edo ko-ofizial gisa edo horren erabilera aitortzen duten gobernu mailatan, baita herritarrekiko eta euren elkarte ehunarekiko harremanetan ere.
- b) Euren jarduera profesionalen bereziki euskara erabiliko dute, bai ahoz baita idatziz ere, euren hizketakideek euskararen ezagutza maila nahikoa ez duten jardun edo harremanetan salbu.
- c) Edozelan ere, aurrekoari kalterik egin gabe, hizkuntzaren ko-ofizialtasunaren markoa errespetatuz jardungo dute.

3.5. ARDURA PROFESIONALA

- a) Zerbitzari publikoaren edo foru langile publikoaren jardunaren azken helburua, eta oinarritzakoa, herritarrei zerbitzua ematea da.
- b) Euren funtzioak burutzean, foru langile publikoek ardura profesionalarekin jardungo dute beti, euren funtzioak eta lanak diligenzia handienarekin betez eta markatutako helburuak betetzeko beharrezko esfortzua eginez.
- c) Horrek esleitutako funtzioen dedikazio berezia dakar, gai edo administrazio izapide bakoitzak suposatzen dituen interes eta jarrerak baloratuz beti, proposamen edo txostenak arrazoituz eta, edozelan ere, funtzio horiek egoki ez betetzeak edo euren jarrerak sortzen dituen ondorioak onartuz.
- d) Jarduera profesionalaren eguneroko kudeaketan, foru langile publikoek agintaldi bakoitzaren Plan Estrategikoan sartutako helburuen bidez lan egingo dute, baita kudeaketaren emaitzak ebaluatu ahal izateko ezarritako adierazleak betez ere.

4

*Foru enplegu
publikoaren etika eta
kudeaketa onaren
kodearen erakundearen
zuzentasun markoa,
foru aldundiaren eta
bere sektore publikoaren
azpiegitura etikoa
indartzeko*

1. ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN MARKOA: DIMENTSIOAK

1.1.

Foru enplegu publikoaren Etika eta Kudeaketa Onaren Kode honek ere sartzen den Erakunde Zuzentasunaren Marko hau barne hartzen du.

1.2.

Foru enplegu publikoaren Erakundearen Zuzentasunaren markoa helburu, neurri, programa, prozedura, balore, printzipio eta arauekin osatzen da, baita berme eta jarraipen erakundeekin, foru enplegu publikoan erakundearen zuzentasun politika egonkortzea helburu dutenak praktika okerrak agertzea ekiditeko edo horien prebentziorako, eta foru enplegu publikoaren azpiegitura etikoa garatzea, erakunde honi eta bertan euren funtzio profesionalak garatzen dituzten pertsonen prestigioa ematen diena.

1.3.

Hedatutako Etika Batzordeak sustatu ditzakeen beste ekintza osagarriei kalterik egin gabe, Erakundearen Zuzentasun Markoa honako dimentsioetan proiektatuko da, behintzat:

- 1) Hezkuntza sistemaren zerbitzu publikoko eta etika publikoko baloreak sustatzeko neurriak.
- 2) Enplegu publikoan sartzeko prozesuetan zerbitzu publikoaren, etika publikoaren eta kudeaketa onaren printzipioak sartzea.
- 3) Sarreraren osagarriak diren formazio programak ezartzea, zerbitzu publikoaren, etika publikoaren eta administrazio edo kudeaketa onaren baloreei dagozkien alderdiak garatzen dituztenak.
- 4) Zerbitzu publikoko baloreak, balore etikoak eta administrazio edo kudeaketa onaren baloreak sustatu, hedatu eta formazioa formazio jarraituko programetan.
- 5) Kode honetan jasotako balore, printzipio eta arauak betetzearen ondorioz planteatu daitezkeen gai etikoak edo kexak konpontzeko bideak, zirkuituak edo prozedurak sortzea.
- 6) Arazo edo dilema etikoen gaineko konponketa, proposamena edo gomendioak egozte, baita Kodearen berme organoa den heinean Etika Batzordeari egotzi ahal zaizkion kexa hipotetikoak ere.
- 7) Jarraipen eta Kodearen Ebaluazioaren Sistema bat ezartzea.
- 8) Etika publikoaren eremuko praktika onak indartzea eta horiek helaraztea bermatzea.
- 9) Hala badagokio, kontratazio publikoko prozeduretan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten langile publikoentzat jokabide arau zehatzak zehaztea

2. HEZKUNTZA SISTEMAREN ZERBITZU PUBLIKOKO ETA ETIKA PUBLIKOKO BALOREAK SUSTATZEKO NEURRIAK

2.1.

Foru Aldundiak jarduera profesionalaren garapena busti behar duten zerbitzu publikoaren eta etika publikoaren baloreen hedapena sustatu ahalko du, eta foru enplegu publikoak herritarrei egindako emate jardueran hezkuntza sistemaren maila ezberdinen artean.

2.2.

Hedapen hau bide ezberdinetatik egin ahalko da eta, hala badagokio, bereziki Foru Administrazioaren funtzioekin inplikazio handiagoa duten unibertsitate ikasketetan edo ikasketa profesionaletan proiektatuko da, etorkizunean funtzio publikoan sartzeko hautapen prozesuetan parte hartu dezaketen pertsonen artean enplegu publikoaren baloreak hedatzeko xedez.

2.3.

Hedapen neurri hauek, eta haren politika publikoen markoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak zaintzaren etikaren berezko alderdiak garatzea dakarten zerbitzuak emateko jardueraren eremu horietan, gizarte bazterketa edo ahulgarritasun berezia duten pertsona edo kolektiboek bereziki zuzendutakoak

3. ENPLEGU PUBLIKOAN SARTZEKO PROZESUETAN ZERBITZU PUBLIKOAREN, ETIKA PUBLIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO ONAREN PRINTZIPIOAK SARTzea

3.1.

Foru enplegu publikoan barne promoziorako edo sarrerarako hautaketa prozesuetan zerbitzu publikoaren, etika publikoaren eta administrazio onaren baloreen gaineko ezagutza exijitu ahalko da, edo kudeaketa hobetzekoa.

3.2.

Ezagutza horiek deialdiaren edo hautapen proben oinarrietan sartuko balira, Foru Aldundia, kasu honetan, Administrazio Publikoko Euskal Institutuarekin batera, beharrezko oinarritzko materialak prestatuko ditu, klasifikazio talde edo azpi-taldeen exijentzia ezberdinak aintzat hartuz, foru enplegu publikorako hautagaiek eduki horiek egoki prestatu ahal izateko.

4. SARRERAREN OSAGARRIAK DIREN FORMAZIO PROGRAMAK EZARTZEA, ZERBITZU PUBLIKOAREN, ETIKA PUBLIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO EDO KUDEAKETA ONAREN EDO KUDEAKETA HOBETZEAREN BALOREEI DAGOZKIEN ALDERDIAK GARATZEN DITUZTENAK

4.1.

Foru Administrazioak edo bere erakundeen sektore publikoaren erakundeek egiten dituzten sarrerarako formazio osagarriko programa guztietan, zerbitzu publikoaren, etika publikoaren eta administrazio onaren edo kudeaketa hobetzearen baloreak sustatzeko ekintzak sartuko dira.

4.2.

Formalizatutako programa horiek existituko ez balira, Foru Administrazioak eta erakundearen sektore publikoko erakundeak, hautaketa prozesuak egin ostean, helburu gisa Kode honetan aitortutako Balore etikoak eta Kudeaketa Onaren Printzipioak dituen harrera formazioa antolatu beharko dute, baita foru langile berriek euren etorkizuneko jarduera profesionala gauzatzean kultura etikoa eta kudeaketa onar barneratuko dutela bermatzen duena ere, herritarrei zerbitzu hobea emateko xedez.

5. BALORE ETIKOAK ETA ADMINISTRAZIO EDO KUDEAKETA HOBETZEAREN BALOREAK SUSTATU, HEDATU ETA FORMAZIOA FORMAZIO JARRAITUKO PROGRAMETAN

5.1.

Foru Administrazioak eta bere sektore publikoko profesionalaren erakundeek urteroko formazio jarraituko programetan balore etikoak eta kudeaketa onaren printzipioak hedatzera zuzendutako formazio ekintzak sartuko dituzte, batez ere foru langile publikoek Kode honen eduki eta helburua ezagutzeko, baita horren ezarpenaren inguruan sor daitezkeen arazo, dilema edo gai etikoak ere.

5.2.

Era berean, urtero tailer, hitzaldi edo hedapen ekimenak sustatuko dira, eremu publikoan gai etikoen azterketa, ustelkeriaren aurkako borroka eta administrazio onaren garapena eta kudeaketa hobetzea helburu dutenak.

5.3.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere sentikor bihurtzera bideratutako formazio programak garatuko ditu, euren foru politika publikoen eremuan, zaintzaren etikaren gainean, prestazio publikoak bereziki ahulak diren pertsona edo kolektiboei zuzenduta daudenean.

5.4.

Horretarako, lehen adierazitako helburu guztiak betetzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak eremu hauetako kolaborazio hitzarmenak sustatu ahalko ditu beste erakunde publiko eta pribatuekin, baita gobernuz kanpoko erakundeekin ere, zuzentasuna, gardentasuna

eta ustelkeriaren aurkako borroka sustatzeko zeregina dutenak, baita euren helburuak bereziki ahulak diren pertsona edo kolektiboak babestera zuzentzen dituztenak ere.

6. FORU ENPLEGU PUBLIKOAN ERAKUNDEAREN ZUZENTASUNA HEDATZEKO ETA PREBENTZIORAKO BESTE SISTEMAK

6.1.

Aurreko ataletan aurreikusitako neurriez gain, foru administrazioak kode honen edukiaren hedapenean laguntzen duten neurri osagarri guztiak ezarriko ditu, eta foru enplegu publikoaren erakundearen zuzentasuna babesteko arrisku markoen prebentzio edo zehazteko kultura sartzan laguntzen dutenak eta herritarren artean ospea eta aitortpena bermatzeko.

6.2.

Edozelan ere, kode honen edukia bide elektronikoaren bidez hedatuko da, sare sozialen bidez, eta bereziki foru erakundearen Web orriaren eta Gardentasun Atariaren bidez.

6.3.

Foru Aldundiak, Jarraipen eta Ebaluazio Batzordeak hala eskatuta, foru enplegu publikoaren azpiegitura etikoa indartzera zuzendutako hedapen eta prebentzio neurrien urteko programa bat egingo du. Programatutako formazio ekintzak derrigorrez bete beharko dituzte langile publikoek, eta era berean, emaitzen arabera ebaluatuko dira.

7. EZAGUTZAREN KUDEAKETA PROZESUETAN ZERBITZU PUBLIKOKO BALOREETAN KOLABORATZEA ETA HELARAZTEA, FORU ENPLEGU PUBLIKOAREN BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOAREN ONDORIOZ

7.1.

Foru langile publikoek modu aktiboan parte hartuko dute ezagutzaren kudeaketa prozesuetan, euren lanpostuetan eman daitekeen belaunaldi erreleboaren ondorioz.

7.2.

Horretarako, egiten zaizkien galdetegiak arduraz erantzungo dituzte eta lanpostua egoki betetzeko eta horretan erreleboa egingo dieten etorkizuneko hautagaienganako edo langile publikoenganako ezagutzaren transferentzia egiteko beharrezko gaitasunak identifikatzea helburu duten elkarrizketetan modu aktiboan parte hartuko dute.

7.3.

Era berean, ezagutza eta trebetasun horiek helarazteko errekeritutako formazioa emango dute, eta bilatutako emaitzak eta ezagutzaren kudeaketan eraginkortasunik handiena lortzeko beharrezko mentoring jarduerak zabalduko dituzte.

7.4.

Edozelan ere, langile publiko berriei, ereduaren bidez ere, foru enplegu publikoaren oinarritzko erakunde arkitektura osatzen duten balore eta printzipioak helaraziko dizkiete.

8. ESKUMENAK EBALUATZEKO PROZESUETAN ETA KUDEAKETA HOBETZEKO BESTE PROZESUETAN KOLABORATZEA

8.1.

Foru langile publikoek modu aktiboan parte hartuko dute Foru Aldundiak ezartzen dituen korporazio eskumenak eta kudeaketa ebaluatzekeko prozesuetan.

8.2.

Horretarako, bidaltzen zaizkien galdetegiak eta beste edozein dokumentazio bete beharko dute, gai horren inguruko tailer eta formazio programetan parte hartuko dute eta, era berean, euren sail, zuzendaritza, zerbitzu edo administrazio unitateko lanpostuekin lotuta esleitzen zaizkien ebaluazioak burutuko dituzte.

8.3.

Era berean, nagusiekin planifikatzen diren adostasun bileretan aktiboki parte hartuko dute, Foru Aldundiko langileek lortu beharreko gisa identifikatutako korporazio eta kudeaketa eskumenak lortzeko hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko asmoz.

9. GAI ETIKOAK, DILEMAK PLANTEATZEKO EDO, HALA BADAGOKIO, KEXAK KONPONTZEKO BIDEAK, ZIRKUITUAK EDO PROZEDURAK SORTZEA

9.1.

Foru Administrazioak foru langile publikoek planteatu ditzaketen gai etikoak, arazo edo dilemak izapidetzeko prozedurak edo bideak ezarriko ditu, baita herritarrek edo langile publikoek beraiek kode honetan ezarritako balore, printzipio edo arau batzuk ez betetzeari lotuta planteatu ditzaketen kexak ere, hala badagokio.

9.2.

Ahal izatekotan, prozedura edo bide horiek bide elektronikoen bidez gauzatuko dira.

9.3.

Ahoz egindako edozein kontsultaren edukia idatziz jasota geratuko da, bere kasuan konfidentzialtasuna mantenduko delarik.

9.4.

Kodean erregulatutakoarekin lotutako gai etikoak, kontsultak, dilemak edo arazoak hedatutako Erakundearen Batzorde Etikoaren aurrean planteatu beharko dira.

9.5.

Gai etikoak, kontsultak, dilemak edo arazoak, foru langile publikoak hala ikusten duenean jorratu beharreko helburua sensiblea delako, izaera konfidentziala izan ahalko du.

9.6.

Kode honetako balore, printzipio eta arauak ez betetzearekin edo egoki ez betetzearekin lotuta planteatzen diren kexak idatziz paperean edo modu elektroniko edo digitalean Etika Batzordearen aurrean izapidetuko dira halabeharrez, bide beretik modu arrazoituan erantzungo duena. Horretarako, Etika Batzordean kexen postontzi elektronikoa egongo da. Kexak izena izango ez balu, Batzordeak hura izapidetzeko edo artxibatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

9.7.

Kexak ondorio penal edo zigor ondorioak izatekotan, Etika Batzordeak egin duenaren anonimotasuna bermatuko du eta beharrezko neurriak hartuko ditu, indarrean dagoen legediaren arabera, kexa egin duen pertsona babesteko.

9.8.

Etika Batzordeak gaiak, kontsultak, arazoak edo dilemak, baita kexak direla eta ere emandako gomendio, proposamen edo txosten guztiak hedatuko ditu, baina beti izenik gabe eta bertan agertzen diren datu pertsonal guztiak bereiztu ondoren.

10. ETIKA BATZORDEA

10.1.

Kode hau ezartzeko berme organo nagusia Gipuzkoako Foru Administrazioaren Erakundearen Etika Batzordea izango da, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutakoa. Horren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Foru Sektore Publikoaren Erakundearen Etika Batzordea sortu zen (2016ko martxoaren 10eko GAO)..

10.2.

Edozein kasutan, Erakundearen Etika Batzordeak Kode hau ezartzeari lotutako gaiak ezagutzen dituenen, haren parte izango dira, Dekretu hori aldatu ondoren, langileen ordezkariak esleitutako pertsona bat, boza bai baino bozka izango ez duena.

10.3.

Kode hau ezartzeko eremuan, Erakundearen Etika Batzordearen funtzioak ondorengoak izango dira:

- a) Formalki planteatu zaizkion gai, kontsulta, dilema, arazo edo kexen gainean gomendioak, proposamenak egin edo informazioa eman.
- b) Kode honen ezarpenaren arabera, Erakundearen Etika Batzordearen jardueraren gaineko urteko txosten bat egin.

c) Kode honen ezarpen Gida bat egin, non testu honetan ezarritako balore, printzipio eta araei eman ahal zaien hedapena zehazten den aztertutako kasuen arabera.

10.4.

Kodea ez betetzekotan, Batzordeak arrazoitutako idatzi baten bidez jakinaraziko dio gorabehera hori langile publikoari, etika edo kudeaketa hobetzeko gomendio baten bidez, honek jarrera horiek ez errepikatzeko bere jokabidea zuzentzeko neurriak borondatezko moduan hartzeko asmoz. Edozelan ere, langile publikoak Batzordearen irizpidea ukatu dezake arrazoitutako idatzi baten bidez. Argudioen idatzi hau jaso ondoren, Batzordeak lehen adierazitako gomendioa berretsi edo aldatuko du.

10.5.

Hautemandako ez betetzea dela eta diziplina ondorioak edo penalak eman badaitezke, Erakundearen Etika Batzordeak, kaltetutako pertsonari audientzia eman ondoren, txostena edo proposamena egingo du eta eskumena duen organoari helaraziko dio jarraitu beharreko prozedura ebaluatu dezan.

11. KODEAREN EBALUAZIO SISTEMA ETA GARAPENAREN JARRAIPENA

Kodearen ebaluazioa eta garapenaren jarraipena bertan ezarritako edukiak aldatzeko proposamenak egitea dakarren guztian, programa edo formazio ekintzen proposamenak, baita kode hori ezartzeko urteko emaitzen ebaluazioa ere, hedatutako Erakundearen Etika Batzordeak egingo ditu.

12. KONTRATAZIO PUBLIKOKO PROZEDURETAN ZUZENEAN EDO ZEHARKA PARTE HARTZEN DUTEN LANGILE PUBLIKOENTZAT JOKABIDE ARAU ZEHATZAK

12.1.

Kode honetan jasotako balore, printzipio eta arau guztiak foru langile publiko guztiei guztiz ezartzeari kalterik egin gabe, Foru Aldundiak jokabide arau zehatzak ezarri ahalko ditu, inpartzialtasuna eta profesionalizatzea babesteko asmoz, kontratazio publikoko prozeduretan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten langile publikoei modu osagarrian ezartzeko.

12.2.

Jokabide arau horiek kode osagarrietan edo adierazitako eremuan funtzio publikoak gauzatzean inpartzialtasuna, objektibotasuna eta profesionaltasuna gordetzera zuzendutako beste edozein instrumenturen bidez jaso ahalko dira.

